Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIak – Gurutzetako Plaza,12 (Barakaldo) – Lehen Mailako eta Ospitaleko arreta ematen duen Osakidetzako osasun-erakundea da, erreferentziako eta goi mailako zerbitzu espezializatuak eskaintzen dituena. Herritarren osasuna hobetzeko lan egiten dugu, haien parte hartzearekin osasun sistemarako zein gizarte osoarentzat baliagarria den ezagutza eta berrikuntza sortuz.

EEG ESIan badakigu zeinen garrantzitsua den gure jardueratik giza garapen iraunkorraren erronka globalari ekarpena egitea. Hori dela eta, EEG ESIa lerrokatu da Garapen Jasangarriaren helburuekin (GJH), **Euskadi 2030 Agendarekin** bat etorriz, eta EEG ESIak **Gizarte- eta Ingurumen-erantzukizunaren alde duen konpromiso irmoa adierazten du**, ingurumen-politika hori gure jardueran integratuz eta gure ingurumena babestera aktiboki bideratuz, honako printzipio hauen arabera:

- Ingurumenarekiko konpromisoa hartzea eta gure jarduerak sortutako inpaktua ahalik eta gehien murrizten saiatzea. Horretarako, **EMAS Erregelamenduan oinarritutako ingurumen-kudeaketako sistema bat ezarri eta egiaztatu dugu,** eta sistema horretan ingurumen-aldagaia txertatu dugu gure ESIaren jardueren plangintzan eta kudeaketan.
- Gure jarduerarekin lotutako **ingurumen-alderdiak identifikatzea eta ebaluatzea**, eta ingurumen-hobekuntza etengabea eta kutsaduraren prebentzioa bermatuko duten ekintzak eta jardunbide egokiak sustatzea, lege-eskakizunak eta bestelako eskakizunak betetzeaz harago.
- ESIa esparru eta baliabide egokiez hornitzea, **Ekonomia Zirkularraren** printzipioak aplikatu eta, urtero **ingurumen-programak, -xedeak eta -helburuak** ezarri eta berrikusi ahal izateko, gure ingurumen-politika gure jardueran integratuz, eta ESIaren kudeaketaren berezko plangintza-prozesuetan eta erabakietan ingurumen-aldagaia txertatzea sustatuz.
- ESIko langile guztien artean **prestakuntza, sentsibilizazioa, komunikazioa** eta etengabeko ingurumen-hobekuntzako konpromiso horretan **parte hartzeko** aukera bultzatzea, baliabideen erabileran jasangarritasuna eta eraginkortasuna eta klima-aldaketaren aurkako borroka sustatzeko helburuarekin
- Indarreko **ingurumen-araudiak eta legedia betetzen** direla bermatzea, bai eta ESIak borondatez sinatzen dituen beste betekizun batzuk ere.
- Gure **interes-taldeen** inplikazioa sustatzea—hornitzaileak, kontratak, bezeroak, etab.— herritarren eskura jartzen dugun ingurumen-politika honetan jasotako gure ingurumena babesteko adierazitako konpromisoarekin.



La OSI Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces (OSI EEC), con dirección en Plaza de Cruces, 12 (Barakaldo), es una organización sanitaria de Osakidetza que presta atención primaria y hospitalaria con servicios altamente especializados y referentes. Trabajamos para cuidar y mejorar la salud de las personas, contando con su participación y generando conocimiento e innovación útiles para el sistema sanitario y la sociedad.

Desde la OSI EEC somos conscientes de la importancia de contribuir, desde nuestra actividad, al reto global del desarrollo humano sostenible. Por esta razón, la OSI EEC, se alinea con los objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) de acuerdo con **Agenda Euskadi 2030** y manifiesta el **firme compromiso de la OSI EEC por la Responsabilidad Social y Ambiental,** integrando esta política ambiental en nuestra actividad y orientándonos de manera activa, hacia la protección de nuestro entorno ambiental, con los siguientes principios:

- Proteger el medio ambiente minimizando al máximo el impacto generado por nuestra actividad. Para ello, hemos **implantado y certificado un sistema de gestión ambiental basado en el Reglamento EMAS**, en el que integramos la variable ambiental en la planificación y gestión de las actividades de nuestra OSI.
- **Identificar y evaluar los aspectos ambientales** asociados a nuestra actividad y promover acciones y buenas prácticas que garanticen nuestra mejora ambiental continua y la prevención de la contaminación, más allá del cumplimiento de los requisitos legales y otros requisitos.
- Dotar a la OSI del marco y recursos adecuados aplicando principios de **Economía Circular** que permitan establecer y revisar anualmente **objetivos, metas y programas ambientales**, integrando nuestra Política Ambiental en nuestra actividad y promoviendo la incorporación de la variable ambiental en la toma de decisiones y procesos de planificación propios de la gestión de la OSI.
- Promover la **formación, sensibilización, comunicación** y la posibilidad de **participación** a todo el personal de la OSI en este compromiso de mejora ambiental continua, con el objetivo de fomentar la sostenibilidad y eficiencia en el uso de los recursos y la lucha contra el Cambio Climático.
- Garantizar el **cumplimiento de las normas y legislación ambiental** de aplicación, así como otros requisitos que la OSI, voluntariamente, suscriba.
- Promover entre nuestros **grupos de interés** (proveedores, contratas, clientes, etc.) su implicación en el compromiso de protección de nuestro entorno ambiental recogido en esta Política Ambiental que ponemos a disposición del público.

Osakidetza
EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES ESI
OSI EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES
GERENTZIA
GERENCIA

*Mª Luz Marqués González*
*Zuzendari Gerentea / Directora Gerente*
*2021eko Otsaila / Febrero de 2021*